

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Ogasunak bere webgunean beste bide bat jarri du iruzurratik salaketa anonimoak aurkezteko

*Gobernuak erakunde horren egituran barne-aldaketak egitea erabaki du iruzur fiskalaren aurkako borroka-plan eraginkorragoa egiteko*

Miércoles, 24 de septiembre de 2014

Nafarroako Zerga Ogasunak [www.hacienda.navarra.es](http://www.hacienda.navarra.es) webgunean beste bide bat jarri du herritarrek iruzur fiskalagatik salaketak aurkeztu ahal ditzaten eta, horretarako, [formulario](#) anonimo bat bidaliz.

[2014-2017 iruzur fiskalaren aurkako borroka-plan](#)ean jasotako 157 neurrietako bat da hori, eta haren berri eman dio gaurko bilkuran Lourdes Goicoechea lehendakariordeak Gobernuari. Plan horren esparruan, eta jarduera eraginkorragoak izateko asmoz, Foru Gobernuak Ogasunaren egitura egin beharreko aldaketa batzuk onartu ditu.

Lourdes Goicoecheak bilkuraren ondorengo prentsurrekoan adierazi duenez, web-aplikazio berri honen asmoa herritarren laguntza bideratzea da, "eta horrek zergadunei buruzko informazio gehiago eta hobe izaten lagunduko du".

Alde horretatik, azpimarratu du "iruzur fiskalak gizarte guztiari egiten diola kalte eta, bereziki, ahulenei zerbitzu publikoen kopurua eta kalitatea murrizten baitu, oinarrizkoak direnak herritar moduan gure askatasuna garatzeko eta aukeren berdintasuna garatzeko".

Hala, herritar batek iruzur fiskal bat egiten ari dela badaki, Nafarroako Ogasunari jakinarazi ahalko dio era anonimoan bere webgunean dagoen formularioa erabiliz, eta bertan gertakariak nolakoak izan diren deskribatu beharko du labur. Informazio hori jasotzen denean, Ogasunak salaketako edukia egiazkoa den ikertuko du, eta haren arabera jokatu, hau da, espediente bat zabalduko du legezkotasun eza adierazten duten zantzuak badaude edo artxibatu egingo du halakorik topatzen ez badu.

Orain arte, Nafarroako Ogasunak iruzur fiskalengatik herritarren salaketak posta elektronikoz jasotzen zituen, eta baita gutunez edo zuzenean bulegoetan ere. Webguneko formulario hori abian jarrita, prozedura estandarizatu bat antolatu da eta, hari esker, "iruzurraren aurkako borrokan eraginkorragoak izango gara" azaldu du Goicoecheak.

### Ogasunaren egitura aldaketak

Nafarroako Gobernuak asteazken honetako, irailak 24, ohiko bilkuran Nafarroako Zerga Ogasunaren egitura aldatzeko dekretua adostu du, iruzur fiskalaren aurkako borroka-planeko jardueren garapenari egokitzeko asmoz.

Gogoratuko denez, plan horrek herritarren kontzientziazioan eragiten duen plangintza bat dakar, informazio-sistemak hobetzea, arrisku-sektoreen zerga-kontrola eta beste eragile batzuekin koordinatzea.

Aldaketa horiekin, egungo zerbitzuko hamar zuzendaritzatik zortzira igarotzea dakartzatena, zergadunei emandako arreta-zerbitzuen eraginkortasuna hobetu nahi da, horretarako gaur arte horretaz arduratzen diren unitate organikoak bateratuz. Zerga-kudeaketa integrala ere hobetuko da horretan aritzen ziren zerbitzuak bateratuz.

Zehazki, Nafarroako Gobernuak erabaki du, zerbitzuko hiru zuzendaritza sortu berria den bakar batean uztea. Hala, Zerga Zuzenak, Zehapenak eta Errekerimenduak; Zeharkako Zergak eta Enpresa Handiak; eta PFEZ nahiz Ondarearen gaineko Zerga Kudeaketarenak, orain, Zerga Kudeaketa Zerbitzu berrian batzen dira. Halaber, Zerga eta Zerga-bilketa Aztertzekeo Zerbitzuak honako izen hau hartuko du: Azterketa, Plangintza eta Prestakuntza Fiskaleko Zerbitzua.